

Sanpedroak ORION

Festak heldu dira Gipuzkoako kostaldera. Sanpelaioak Zarautzen, eta orain, Sanpedroak Orion. Untzi eta lanerako tresnak portuan utzi eta lehorraldean ibiliko dira zenbait egunetan arrantzale oriotarrak.

# Ikurrina altxatuko da gaur Orion

AINHOA GERRA

Orioko plazan Ikurrina gaueko hamaika t'erdietan altxatuko bada ere, jai giroa arratsalde osoan zehar nabarituko da, inguru horretan txistulari, buruhandi eta Orioko txaranga arratsaldeko zazpietatik aurrera kaleak alaitzen ibiliko baitira.

Herriko neska-mutilak, haur, gazte eta helduak koadrilatan elkartzen dira jai egunetan eta hauetako bakoitzak alkandora berezi bat eraman ohi du beste koadriletatik bereizteko. Koadrilek daramatzaten kolore eta mota guztietako alkandorek, urtean zehar ez-ohizkoak diren kolorez beteko dituzte herri arrantzale honetako taberna eta kaleak. Tabernen itxura ere zertxobait ezberdina izango da jaiak irauten duten bitartean. Mahai eta aulkiak izaten dituztenek, beren tokitik kenduko dituzte leku gehiago izateko eta taberna askotan, urtean zehar jartzen dituzten disko edo konpaktoak beste 'moderno' edo dantzagariago batzuegatik aldatuko dituzte. Zinta batetan talde ezberdinen kankak grabatu eta gau osoan zehar aldatuko ez duten tabernarik egongo da ziur asko

EGITARAUA

GAUR

- 19.00: Txistulariak eta buruhandiak kalejiran.
- 19.30: Kalejira Orioko txarangarekin.
- 23.30: Ikurrina altxatzea.
- 24.00: Rock kontzertua plazan, 'Ehun Kilo' taldearekin.

BIHAR

- 10.00: Txistulariak kalejiran.
- 10.30: Meza nagusia elizan.
- 10.45: Dultzaineroak kalejiran.
- 11.00: Trikitilariak kalejiran.
- 12.00: Sardina-jana, alboka, trikitilariak eta txuntxurroak.
- 13.00: Bertsolariak plazan.
- 14.30: Herri bazkaria plazan, txiste kontalari eta bertsolariarekin.
- 17.00: Herriko dantzarien emanaldia plazan.
- 19.00: Joxe eta Ramontxoren emanaldia plazan.
- 20.30: Salatxo abesbatzaren kontzertua elizan.
- 22.00: Musika plazan, Drindots taldearekin.



LEIRE ARZUAGA

Bertsolariak eta dantzaldiak Orion. Bihar bertsolariak izango dira herriko plazan eta etzi, berriz, Egan taldeak gazte eta helduak alaituko ditu.



● Ehun Kilo talde mutrikuarrak kontzertua eskainiko du gaur gauean Orioko plazan. Kostaldeko gazte hauek heavyaren esparruan ibili dira betidanik.

Orion ere. Tabernetan dantzatzea baino, plazan ibiltzea nahiago dutenek, 'Ehun Kilo' taldearen kantuen doinuak dantzatu ahal izango dituzte gaur gauean. Hurrengo egunetan, Drindots, Egan, Irusta eta Jokaldi taldeak izango dira leku berean.

Herriak 4.000 biztanle inguru baditu ere, egun hauetan bertan izango den jende kopurua handitu egingo da. Hondartza ondoan dagoen kanpinera jende morderka joan ohi da jai egunak pasatzera. Batez ere, orain azterketak bukatu berriak dituzten gazteak izaten dira gaupasa egin eta lotara kanpinera joaten direnak. Eguna hondartzan eman eta arratsalde partean herriko plaza gerturatzen direnak ere izaten dira. hauei turista despituak, txomingeroak eta beste antzerako espeziereen bat ere gehitu behar, ezinbestean. Gauzak horrela, joan den asteburuan Hernanin egon ziren lagun askok, asteburu honetan Orio izango dute topaleku.

## Antilla jatetxea

Pintxoak, otartekoak, kaxuelak eta Eguneko menuak

Abeslari kalea, 2 - ORIO ☎ 83.07.50 tel.

## URBAZTER

Aseguruak - Bidaiak

San Nikolas kalea, 6 ORIO ☎ 13 33 14

## ITZIAR

Kirolak

Eusko Gudariak, 23 ORIO ☎ 83 31 03

## KOLON TXIKI JATETXEA

Ongi izan jaietan

Herriko enparantza, 3

ORIO

## San Pedro 94

Gozatu festak euskal giro alaian!  
Gozatu festak euskal giro alaian!  
Gozatu festak euskal giro alaian!  
Gozatu festak euskal giro alaian!  
Gozatu festak euskal giro alaian!

Orioko Udala

